



**DURANGOKO SAN FAUSTO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA**

Durangoko Udaleko Jai Batzordeak kartel lehiaketa iragartzen du **2019ko SAN FAUSTO** jaietarako. Hauek dira **OINARRIAK**:

1. **Parte-hartzaileak**: artista zale edo profesional guztiek har dezakete parte.
2. **Egile bakoitzak hiru lan** aurkeztu ditzake gehienez ere.
3. **Tamaina**: kartelaren neurriak 70x50 zentimetrokoa izango da (ez etzana). Egileak CD batean, hiru digitalizazio aurkeztu behar ditu: bata 200 Kb-ko JPGa, Mb1-eko JPGa eta azken inpresioaren tamainako erresoluzio altuko PDF bat.
4. Obrak **originalak eta argitaratu gabeak** izango dira.
5. **Gaia, kolorea eta teknika**: librea (koloreak eta konposaketa), dena den, kontuan hartu beharko da deialdiaren zergatia.
6. Kartelean agertu beharreko **testu hurrengo hau** izango da:  
**SAN FAUSTO JAIK 2019 DURANGO**  
**Urriaren 11tik 20ra**
7. **Epea**: lanak aurkezteko azken eguna 2019ko abuztuaren 30 izango da (14:00ak arte).
8. **Tokia**: Durangoko Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ), Barrenkalea 17, 09:00etatik 14:00etara.
9. **Informazio telefonoa**: 94 603 00 30
10. **Identifikazioa**: lanak goiburuarekin eta egilearen sinadurarik gabe aurkeztu beharko dira. Goiburu bera daraman gutun-azal itxi batean egilea identifikatzeko datuak adieraziko dira, hau da, izen-abizena, NAN, helbidea eta telefonoa.
11. **Saria**: lehiaketaren irabazleak 700 euro jasoko ditu.
12. Saririk eman gabe ere utzi daiteke, aurkeztutako kartelek behar adinako kalitaterik ez badaukate. Kasu horretan, epaimahaiak artista edo estudio entzutetsuren bati eskatu ahal izango dio kartela egiteko.
13. **Kartel irabazlea**: kartelak, teknika aldetik, tonalitate-aldaketaren bat beharko balu hobeto inprimatzeko edo, San Fausto Jaien daten akatsak edota ortografiari buruzkoak baleude, epaimahaiak aldaketok agindu ahal izango ditu, egilearen baimenarekin.



14. **Epaimahaia:** Jai batzordeak izendatuko du eta batzordekideez, presidentea barne, eta Durangoko artearekin zerikusia duten pertsonez osatuta egongo da.
15. **Kartel irabazlearen aukeraketa:** epaimahaiak 7 kartel aukeratuko ditu eta, erabakitzean dagoen leku batean eta udalaren web-gunean jarriko ditu ikusgai; ondoren, herritarrek parte hartzeko aldia irekiko da eta hurrengo aukerak egongo dira botoa emateko:
- Aurrez aurreko botoa
  - Udalaren web-gunearen bidez
- Herritarrek bozkatzeko epea irailaren 7tik 12ra bitartean egongo da zabalik eta boto gehien jasotzen duen kartela irabazlea izango da.
- Herritarrek parte hartzeko aldia eta bozketaren prozedura behar den unean eta moduan iragarriko dira.
16. **Irudien eskubidea:** aurkezten diren lan guztiek behar bezala kudeatuta izan behar dituzte kartelean ageri diren argazki, marrazki edo baliabide grafikoak erabiltzeko eskubideak, betiere, karteleko elementuak irudi-bankuetatik hartuak badira edo lehiaketara aurkeztu den egileak berak eginak ez badira. Elementu grafikoak beste nonbaitetik hartuak badira, irudiaren edo baliabide grafikoaren titularraren baimena aurkeztu behar da. Durangoko Udalak ez du bere gain hartuko hirugarren batzuk aipatuta aurkezten diren lanen edukiaren edozein motatako kalte edo ondoriozko erreklamazioen erantzukizunik. Era berean, saiaturiko dira generoak agertzeari dagokionez oreka gordetzen; tradiziozko rolak edo estereotipoak muturrera ez eramaten; eta sexua, adina, kultura edo sexu-aukera direla-eta, tratamendu gutxiesgarriak saihesten. Pertsonen argazkiak erabili daitezke baldin eta hauen baimena aurkezten bada, edo tutoreena, adin txikikoa edo erabakigaitasun murriztekoa bada.
17. **Epaimahaiaren ahalmenak:** epaimahaiak, aukeraketa prozesuaren barruan, lehiaketatik kanpo utz ditzake lanak, ondoren aipatzen diren kasuetan:
- Egilea nor den zalantza dagoenean.
  - Pertsonen duintasunaren aurka doazenean.
  - Beste obra batzuen plagiotzat hartzen dituenak eta plagiotzat jo ez arren beste obra batzuetan inspiratutakoak izanik eta haiekin dituzten berdintasunez epaimahaia jabeturik, originaltasunik ez dutela erabakitzen duenean. Herri-bozketa hasi ondoren uzten bada lanen bat lehiaketatik kanpo, bozketak gainerako finalistekin jarraituko du.
18. **Epaimahaiaren eskumenak** bere horretan utzita, bakarrik hartuko ditu kontuan herri-bozketa egiteko epearen barruan aurkezten diren kexak edo erreklamazioak.
19. **Epaimahaiaren erabakia** apelaezina izango da. Hala ere, epaimahaiak erabakia berriro aztertu dezake eta baliorik gabe utzi aurreko puntuko gorabeheraren bat gertatzen denean.



# DURANGO

Udala • Ayuntamiento

---

20. Kartel irabazlea zein izan den irailaren 16an jakitera emango da. Durangoko Udalak kartel irabazlearen jabetza ez ezik, jendaurreko komunikaziorako, kopiatzeko eta banatzeko eskubideak ere eskuratuko ditu; eskubide horiek Udalarenak baino ez dira izango.
21. Aurkeztutako lanak ikusgai jarri ahal izango dira Durangoko Udaleko web-gunean. Eta, honetaz gain, zazpi kartel finalistak aukeratu eta 2019ko azaroaren 31ra arte ikusgai jartzeko eta eurei zabalkundea emateko eskubidea izango du Udalak. Epe horretan eskubideak dohainik eta berari bakarrik laga zaizkiola ulertuko da obren erakusketa amaitu arte. Lanok erakusteko leku nahikorik ez balego, epaimahaiak, lanon kalitate artistikoa aintzat hartuta, bere esku izango du erakutsiko diren lanen aukeraketa egitea.
22. Lehiaketan parte hartzeak baldintza guztiak onartu direla esan nahi du.